

# TERRORISMOAREN AMAIERA

## 48. EUSKAL SOZIOMETROA 2012KO MARTXOA

### Prentsa oharra

#### SARRERA

**Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen** 2012. urteko programazioaren baitan, 48. SOZIOMETRO honen helburua izan da ETaren indarkeriaren amaierari buruz biztanleriak dituen pertzepzioak jasotzea, baita EAEko testuinguru politiko-ekonomikoari buruz eta jarrera politikoei eta instituzioen baloraziori buruz azaltzen dituzten iritziak ere, aurreko SOZIOMETROETAN ikertutakoari jarraituz.

SOZIOMETRO honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsultatu daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 2.254 lagunek osatua da, eta informazioa etxean egindako banakako elkarrizketen bidez jaso da. Lagin errorearen estimazioa  $\pm 2,11$  da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako,  $p=q=0,5$  izanik. Informazio bilketa 2012ko otsailaren 6a eta 11 bitartean egin zen.

#### NABARMENTZEKOAK

##### TESTUINGURU POLITIKO-EKONOMIKOA

- Egoera politikoaren pertzepzioak 2006tik izan duen baloraziorik onena jaso du. Egun horretatik lehenengoz, iritzi positiboek (%48) 6 puntutan gainditzen dituzte iritzi negatiboak (%42).
- Inkestatutako lau pertsonatik hiruk uste dute Euskadiko egoera ekonomikoa Espainiakoa baino hobea dela.

##### TERRORISMOAREN AMAIERA

- Gehiengoak uste du ETak betiko uko egin diola indarkeriari, baina oraindik bada kontuan hartzeko eszeptikoen portzentaje bat.
- Gehiengoak uste du ETako presoek egindako kaltea onartu beharko luketela, eta ados agertu da gobernuak indarkeriari uko egiten diotenen bergizarteratzea erraztearekin eta presoak euskal espetxeetara gerturatzearekin.
- ETak denbora beharko du desagertzeko eta ondorio txarrak utziko ditu harreman sozialetan

##### JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

- Azaroko neurketarekiko, apur bat handitu da politikarekiko interesa.
- Herritarren interes handieneko gai politikoaren artean daude langabeziaren aurkako borroka (%75), iruzur fiskala (%39), iruzurra gizarte laguntzetan (%26) eta aurrekontuen murrizketak (%21).

#### EMAITZAK

### 1. TESTUINGURU POLITIKO-EKONOMIKOAREN PERTZEPZIOA

Egoera politikoaren pertzepzioa 2006tik izan den onena da. Inkestatuen %48k (azaroran baino bost puntu gehiagok) diote Euskadiko egoera politikoa *ona edo oso ona* dela eta %42k, aldiz, (azaroran baino 8 puntu gutxiagok) *txarra edo oso txarra* dela.

*Gauzak gaur egun nola dihoazkien galdetuta, herritarren balorazio pertsonala* 6,1 puntukoa da 10en gainean. Balorazio hori 6ra jaisten da datorren urtera begira gauza bera galdetuta. Joera antzerakoa da kolektiboki, Euskadiri buruzko galdera egindakoan: gaur egungo balorazioa 5,3koa da eta *datorren urtean gauzak nola joango diren* galdetuta 5,2koa. Espainiako gainerako lekuei buruz balorazioak negatiboak dira: 3,7 gaur egun eta 3,6 hemendik urtebetera. Balorazioak altuagoak dira 18 eta 29 urte bitarteko gazteen artean; gaur egun gauzak nola dihoazkien galdetuta 6,4 puntu ematen dituzte eta hemendik urtebetera nola joango zaizkien baloratzean 6,6.

Krisi ekonomikoari dagokionean, inkestatutako lau pertsonatik hiruk uste dute EAeko egoera Espainiako baino hobea dela eta %2k okerragoa dela. %21en ustez EAeko egoera Espainiako bezalakoa da.

Aurreko neurketetan bezala, *arazo garrantzitsuenak lan merkatuari lotutakoak* dira (%84k aipatu dituzte bi arazo nagusien artean), azarotik hona 8 puntu gora egin dutelarik. Arazo ekonomikoak (%34) dira bigarren, nahiz eta azarotik 7 puntu jaitsi diren. Atzetik datoz politikarekin lotutako arazoak (%19), 5 puntu jaitsita. Etxebizitza, laugarren aipatu da eta 3 puntuko igoera izan du (%16) eta indarkeria/terrorismoa bosgarren, bi puntuko igoerarekin (%8).

## 2. TERRORISMOAREN AMAIERA

### Deskonfiantza eta zauri sozialak

Bere jarduera terroristaren behin betiko amaiera iragarri zuenetik pasatako denboraren ondoren, inkestatuen %52k uste dute *ETAk behin betiko uko egin diola bere jarduera armatuari*. %36k kontrakoa uste dute eta %12k ez dute iritzirik eman. Iragarpen horrekiko mesfidatiago azaldu dira 65 urte edo gehiagokoak (%44) eta PPren hautesleak (%58). Konfiantza handiena dutenak hautesle abertzaleak dira, Amaiurren boto-emaileak (%82) eta EAJrenak (%65).

Biztanleriaren erdiak (%50) **itxaropena dauka ETA hurrengo urteetan desagertuko dela** (%27k urtebete edo bi urtetan eta %23k bost urte baino gutxiagotan), eta beste %19k uste dute *desagertuko dela, baina ez bost urte baino lehen*. %20k diote *ETA ez dela inoiz desagertuko* eta %10ek ez dute iritzirik eman. Dena dela, ETAREN amaiera hurbil egon daitekeela suposatuz, %42k uste dute *terrorismoak herritarren artean utzitako errezelo politikoak eta zauri sozialak, urte askotan desagertuko direla*. %34k uste dute errezelo horiek *ez direla desagertuko*. %15ek uste dute *urte gutxitan* desagertuko direla eta %10ek ez daki edo ez du erantzun.

### Normaltasun politikorako bidean

ETAREN amaierarekiko egungo momentuari buruzko sententzio zabalduenak optimismoa (%57k aipatu dute bi sententzio nagusien artean) eta ilusioa (%49) dira. Neurri txikiagoan atzetik datoz nahasmena (%20), kezka (%18) eta denbora galdu izanaren sententzioa (%11). Optimismoaren eskala PPren hautesleen %40tik Amaiurkoen %73ra bitartean dago.

Esanguratsuak dira, ñabardurekin, herritarren elkarbizitzaren markoa osatzen duten jarrera eta jarduerak, ETAk bere jarduera armatuaren amaiera iragarri zuenetik, izan duten hobekuntzari buruzko iritzia. Gutxi gorabehera herritarren laurden bat eta heren baten artean daude uste dutenak pixka bat hobetu direla *politikaz hitz egiteko askatasuna, alderdi politikoen arteko harremanak, ETAREN atentatuetakiko biktimen errekonozimendua, ideologia politiko desberdinen arteko elkarbizitza eta edozein ideia politiko defendatzeko aukerak*. %3 eta %7 arteko gutxiengo batek uste du horiek *guztiak asko hobetu direla eta %52 eta %59 artean daude berdin daudela uste dutenak*.

1998a alde batera utzita (ETAREN su-etena), serieko punturik altuenera iritsi dira *jende guztiarekin politikaz hitz egiteko libre sentitzen* direnak. Horrela diote inkestatuen %43k (2010ean baino puntu bat gehiagok eta 2008an baino 17 puntu gehiagok). Askatasun mailarik altuena Amaiurren

hautesleen artean ematen da (%58 libre sentitzen dira jende guztiarekin politikaz hitz egiteko) eta baxuena PPren boto-emaielen artean (%28).

0 (normaltasun txikiena) eta 10 (normaltasun handiena) artean, euskal gizarteari zein Espainiakoari 5,3ko balorazioa eman diete inkestatuek.

### **ETAko presoek zer egin beharko luketen**

Sei proposameneko sorta batetik, lehentasuna biri emateko eskatuta, inkestatutako herritarrek ondoko hurrenkeran erantzun dute: egindako kaltea onartu (%50), beren erakundea, ETA, deuseztea eskatu jende aurrean (%34), jende aurrean terrorismoari uko egin edo haren kontra azaldu (%32), sistema demokratikoa onartu (%26), bergizarteratzearen bideari ekin (%22), beste erantzun batzuk (%5). %8k ez dio galdera horri erantzun.

### **Gobernuak ETAko presoekiko zein neurri hartu beharko lituzkeen**

Inkestatuen %72 oso edo nahikoa ados daude indarkeriari uko egiten diotenen bergizarteratzea erraztu egin beharko litzatekeela esatean; aldiz, %19 ez daude oso ados edo ez daude batere ados. %69 oso edo nahikoa ados daude ETAko presoak Euskal Herriko kartzelara hurbildu beharko liratekeela esatean; %23, aldiz, ez daude oso ados edo ez daude batere ados. %54 ez daude oso ados edo ez daude batere ados esatean ez dela ezer egin behar ETA desagertu arte; %37, aldiz, oso edo nahikoa ados daude. ETAko presoen aministraren alde (oso edo nahikoa ados) daude bost inkestatutik bat eta haren kontra (ez oso ados edo ez batere ados) %66. %13k ez dio galdera horri erantzun.

Aurreko neurriekiko adostasuna edo adostasunik eza alde batera utzita, inkestatuen %58k uste dute *jarduera terrorista salatu eta horri uko egitea* derrigorrezko baldintzak direla espetxe-onurak eskuratu ahal izateko; bostetik batek (%20) kontrakoa uste du. %11k dio "ETAko presoek ez dutela espetxe-onurarik izan behar".

### **Biktimak**

**Terrorearen biktimekiko euskal gizarteak eduki duen jarrerari** dagokionean, inkestatuen %39k uste dute gizarteak *terrorismoaren biktimen alde zerbait egin duela, baina ez nahikoa*, %28k uste dute *egin behar zena egin duela*, %18k diote *oso gutxi egin duela beraien alde* eta %15ek ez diote galdera horri erantzun. **Biktimen jarrerari** dagokionez, gehiengoak (%40) uste du *biktimek beren eskubideak zilegitasunez defendatu dituztela*, %26k ez dagokien paper politikoa eduki nahi izan dutela, %18k *jarrera eredugarria eduki dutela*, ez dutelako gorrotoa bultzatu eta %16k ez dio galderari erantzun.

## **3. JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK**

### JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

#### **Politikarekiko interesa**

**Politikarekiko interesa** apur bat igo da 2011tik; %72k *interes gutxi* du edo *batere interesik ez* du eta %28k *interes handia* edo *nahikoa*.

**Alderdi politiko** gehien balorazioa igo egin da. EAJk 4,4 puntu lortu ditu 0tik 10erako eskalan, Bilduk 3,7, PSE-EEK 3,5, Aralarrek 3,3, IU-Ezker Anitzak 3,1, PPK 2,1 eta UPDK 2,0.

#### **Definizio ideologikoa**

Aurreko neurketetan bezala, inkestatuen **definizio ideologikoa** kokapen sorta zabala azaltzen du: %26k ikusten dute beren burua, lehenengo edo bigarren lekuan, *euskal nazionalista* edo *abertzale*, %17k *liberal*, %14k *apolitiko*, beste %14k *ekologista*, %13k *sozialista*, %10ek *progresista* edo

*aurrerakoi, %9k demokrata kristau, beste %9k kontserbadore, %8k sozialdemokrata, %5ek feminista, %3k komunista eta %1ek beste erantzun batzuk eman dituzte.*

**Abertzaletasun eta ezker/eskuin** eskaletan, inkestatuen erantzunek ez dute ia gorabeherarik izan aurreko neurketekiko. Otik 10erako eskala horietan, abertzaletasunarekiko kokapena 5,1ekoa da eta ezker/eskuin kokapena 4,3koa.

### **Interes handieneko arazo politikoak**

**Gaurkotasuneko zenbait gai politiko** planteatuta, herritarrek interes argia azaldu dute *langabeziaren aurkako borrokarekiko* (%75ek aipatu dute interes handieneko bi gaien artean). Interes gutxiago azaldu dute *iruzur fiskalari* buruz (%39), *gizarte laguntzen iruzurrari* buruz (%26), *aurrekontuen murrizketei* buruz (%21), *zergen banaketa justuari* buruz (%16), *ETAko preso*en *bergizarteratzeari* buruz (%7) eta *euskal administrazioen bikoizketari* buruz (%4).

### **ERAKUNDEEN BALORAZIOA**

Euskal herritarrei konfiantza handiena eragiten dieten **erakunde politikoak** *udalak* dira (5,7 Otik 10erako eskalan). Atzetik datoz *diputazioak* (5,2), *Eusko Jaurlaritza* (5,0), *Batzar Nagusiak* (5,0), *Eusko Legebiltzarra* (4,9), *Gobernu Zentrala* (3,6), *Diputatuen Kongresua* (3,4) eta azkenik, *alderdi politikoak* (2,9).

**Gizarte erakundeei** dagokienean, herritarrek *GKE edo ONGei* bakarrik ematen diete gaitasuna (5,0). Atzetik datoz *hedabideak* (4,1), *Europar Batasuna* (4,0), *sindikatuak* (3,6), *epaileak* (3,6), *enpresarien elkarteak* (3,1) eta, azkenik, *Eliza* (3,0).

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 9a

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean aurki daiteke:  
<http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-17354/eu/>.